

*SUKALDARI LIBURUAK.*—Euskal literaturaren historian maiz gertatu zaiguna da, gutti edo batere ez dugulakoan, ezerrezaren ustean, dugun urria ere ikusi ez. Baita ere, halako edo holako gaia inoiz landu ez dan ustean lantzen hasi. Era honetako adibide asko emango genituzke, bainan, gaurkoz, exenplurako bederen, gertari berezi baten berri emanen dugu.

Gastronomia gaia, Euskaltzaindiak bere sorreran jarri zuen lehen literatura sariketa zan noski, Julene Azpeitia adiskideak irabazi zuena bere *Osasuna merketza ta yanaritzaz*, 1920-an argitaratutako lana, eta gaur egun EGAN-en orrietan Arrue adiskideak hain ongi eta hain umoretsu eramaten duena *Jan-edanak* izenez; baina lehenago ere landu zen euskal literaturan. Izan ere, gai hortan euskaldunak hain yayoak izanik ez da harritzekoa.

Gai hontaz, lehenago, 1889-garren urtean Tolosako Lopez-enean argitaratu zen, egilearen izen gabe, *COCINAN ICASTECO LIBURUA chit bearra famili gucietan. Lendabjicoa euskeraz*.

Lehendabizikoa? Goazen beraz lehen hau baino antzinagora, eta hogetabost urte lehenago arkituko dugu *ESCUALDUN COCINERA, ceinarekin nornahic cocina ona errechki eguin baiteçake*, Baionako Cluzeau-renean 1864-an argitaratua.

Horra euskal literaturan sarri gertatzen zaiguna, elkarren berririk gabe lan berdinean aritzea.

J. S. M.